

Euskal argitarazleak

El Mundo del País Vasco, 1992-01-10.

Bernardo Estornesi eman dio Eusko Ikaskuntzak aurtengo Lekuona Saria. Ondo merezia. Berton doaz bere bi anaiei dagozkien zatiak, eta baita bere seme-alabei tokatzen zaizkienak ere, familiaz irauten duten arrastoak dira hauek eta. Bernardo Estornes ez da bakarrik euskal argitarazleen munduan bereizi, erresistentzian ere bai, zeren 1958an erbestetik itzuli eta Euskal Herriko Hegoaldean jarri zen pazientzia eta adorea ere eskatzen zuen lan zail hau egiten. "Auñamendi" enziklopedia aipatzea nahikoa da bere obraren garrantzia adierazteko. Argitarazleen alor honetan plantatu garenez gero, garaia da beste inprimatzaile euskaldunen aipamen laburra egiteko. Ez naiz orain bapatean denez oroituko, baina buruan ditudan ahaztu gabe paperean jarri nahi ditut: Sabino Arana izan zen, bere anaiarekin, ez bakarrik idatzi, baita hainbat liburuxka eta aldizkari argitaratzeko ardurak eta diruak jarri ere zituena. Gero, honen jarraitzaile eta inprimatzaile bat, Sebastian Amorrortu, izan zen poliziatik ihes egitearren Buenos Airesa joan eta bertan Ekin-Argitaldaria izango zen oinarri sendoa jarri zuena; hau ez zen nahikoa izango halere gudondoan Argentinaratutako Tolosan inprimatzaile ospatsu izan zen Isaak Lopez Mendizabal heldu ez bazen, Ander Mirena Irujo lagun. Euskal Herri barruan goizdanik eta ausarti, Patxi Unzurrunzaga zarauztarra izan dugu beste exenplua: 1) gero Sabin semen ere ildo beretik jarraitu duena, eta 2) Segundo Eizmendi, bere ikasle izan eta Venezuelaratutako zenean hemen sortu zuen inprimategi ederretik euskaldunen zerbitzuan aritu dena. Eta Donostian *Argia* egiten aritu eta 1930an Pio Montoyaren *El día* egiteko Alemaniatik errotatiba ekarriaren esperientzia Caracas-en eman zuen Rikardo Leizaola.